

I. ERANSKINA. ESKAERAREN INFORMAZIO OSAGARRIA

1. Eskaera egiteko behar den informazioa

Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeak xedatzen duenez, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak baimenak emateko eskumena du bere titulartasuneko errepideen laugunean eta babeserako zonetan obrak, instalazioak edo beste edozein jarduera egiteko.

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren BAIMENA behar da honako hauei eragiten dien jarduketa oro egiteko:

- Errepidearen hiri barruko tartean: (hirigintza plangintzarako udal tresnan hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruan doan edo halako lurzoruarekin muga egiten duen tartea)

Nafarroako Foru Komunitateko Sareko errepide baten **laugunea** (galtzada, bazterbidea, berma, areka edo, arekarik ez badago, errepidearen paraleloan euri urak igarotzen diren zerrenda eta ezpondak barne hartzen dituen eremua).

- Hiriarteko tartean:

Nafarroako Foru Komunitateko Sareko errepide baten **laugunea edo babeserako zonak** (Nafarroako Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legean ezarritako eraikuntza lerroaren eta errepidearen arteko zerrenda).

Sustatzaileak aurkeztu behar du eskaera, egin beharreko obrak edo lanak behar bezala zehazten dituen dokumentazio teknikoarekin batera, dagokion baimena lortzeko.

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak ebazpen baten bidez behin betiko erantzuna emanen du **baimena eman edo ukatzeko**, eta aldez aurretik ezin da bermatu zein erantzun emanen den edo zer baldintza ezarriko diren.

2. Ondorengo tramitazioa

- Eskaera jaso eta aztertu ondoren, dagokion baimena eman edo ukatuko da, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez, eta ebazpen hori helaraziko da eskatzaileak instantzia orokorrean adierazitako posta helbidera.

- **OHAR GARRANTZITSUA**: Errepidearen laugunea (Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren bideen jabari publikoa) ukitzen duen edozein jarduketa betetzeko, interesdunei eskatu ahalako zaie berme edo fidantza bat era dezaten, gehienez ere baimenaren xedeko jarduketaren aurrekontu osoa adinakoa.

Berme horri urtebetez eutsi beharko zaio adostasun aktaren egunetik hasita, eta ez du zerikusirik baimena emateak oro har sorraraziko dituen tasekin, ez eta baimenean ezarritako baldintzak ez betetzeak ekar ditzakeen erantzukizunekin ere.

Ebazpenean adierazten bada baimendutako jarduketagatik fidantza bat ordaindu behar dela, erantsitako dokumentazioan adierazitako jarraibideen arabera egin behar da ordainketa, eta ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu, erregistro orokorraren bidez Ustiapen Atalera bidaliz edo zuinketa egiteko unean Zainketa Zerbitzuko teknikariei emanez.

- Ondoren, baimendunak Zainketa Zerbitzuko teknikariekin jarri behar du harremanetan (ebazpenean bertan agertzen diren telefono edo helbide elektronikoen bidez) zuinketa egiteko eta dagokion akta sinatzeko. Lanak ezin dira hasi zuinketa hori gabe.

- Baimendutako obrak edo jarduketak amaitzean, baimendunak berriro jarri behar du harremanetan Zainketa Zerbitzuko teknikariekin (ebazpenean bertan agertzen diren telefonoetara deituz) adostasun akta sinatzeko.

- Urtebeteko epea du lanak egiteko, ebazpena jasotzen den unetik hasita.

- Interesdunak fidantza itzultzeko eskatzen ahalko du, halakorik bada, adostasun akta sinatu zenetik urtebete igaro ondoren, erregistro bidez eskaera bat aurkeztuz, telefonoz deituz edo posta elektronikoz idatziz (ebazpenean bertan agertzen diren telefono edo helbide elektronikoetara).

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren baimena lortuta ere, baimendunak beste erakunde batzuen nahitaezko baimenak ere lortu behar ditu.